

Hitzaurrea



Joan dira neguko egunak, eta udaberriarekin batera heldu da, urtero legez Behinolako zenbaki berria. Eskuartean duzun hau Galtzagorri Elkarteak antolatutako «Abentura Liburuei buruzko Biltzarra» (Gasteiz, 2003ko azaroaren 13-15) hartako edukiez osatutako ale monografikoa da, ohi baino potoloxeagoa: hasteko, «Hitz eta Pitz» sailean, Biltzarreko azken eguneko mahai-inguru bizia transkribatu dugu; denboran atzera eginez, «Hizpide» atalera aurreko egunetako ponentziarik interesgarrienak ekarri ditugu, horien artean Joanes Urkixo eta Aingeru Epaltza euskal idazle ezagunek egindako ekarpen jakingarriak. Biltzarreko gaiarekin bat, «Hitzatzea» ere bai: aurrerantzean Behinola aldizkariaren koordinazio lanez arduratuko den Ruben Ruiz irakasle eta idazleak Stevenson-en neurriko klasiko bati buruz egina.

Gainontzean, beti bezala, «Hitz beste» sailean kritika eta erreseina ugari topatzeko aukera eskaintzen dugu.

Aipatu behar da, eta eskertu ere bai, Agurtzane Villate irudigile gasteiztarraren esku hartze garrantzitsua azala eta barruko edukiak irudi eta kolorez jazteko orduan.

Adiorik ez, urtebete barru arte baizik. Izan ere, udazkenekoa ez baita ohiko Behinola izango, orain arteko ibilbidearen atzerabegirako liburuxka bat baizik, gure hizkuntza jakin ez arren, bidean hainbeste lagundu digutenekiko begirunez prestatua.

Ondo izan, eta goza irakurketez!

